

EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

MANUAL DE BUENAS PRÁCTICAS
PARA LA AMBIENTALIZACIÓN
DE ACTOS



AURKIBIDEA ÍNDICE

01 SARRERA <i>INTRODUCCIÓN</i>	4
02 HELBURUAK <i>OBJETIVOS</i>	5
03 EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO ARRAZOIAK <i>POR QUÉ AMBIENTALIZAR UN EVENTO</i>	6
04 NOLA EGIN EKITALDI JASANGARRIAK <i>CÓMO AMBIENTALIZAR UN EVENTO</i>	10
05 JARDUNBIDE EGOKIEN BILDUMA <i>RECOPILATORIO DE BUENAS PRÁCTICAS</i>	12

IRUDIAK IMÁGENES

01 EKITALDI JASANGARRIAK EGITEAREN ONURAK <i>BENEFICIOS DERIVADOS DE LA AMBIENTALIZACIÓN DE EVENTOS.</i>	9
02 EKITALDI BAT EGITEKO PROZESUAREN FASEAK <i>FASES DEL PROCESO PARA LLEVAR A CABO UN EVENTO</i>	10
03 EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEN BILDUMA <i>RECOPILATORIO DE BUENAS PRÁCTICAS PARA LA AMBIENTALIZACIÓN DE EVENTOS.</i>	13

Dokumentu hau Urola Kostako Udal Elkarteak egin du eta haren jabetzakoa da.
*Este documento ha sido elaborado por la Mancomunidad de Urola Kosta
y es de su propiedad.*



SARRERA

Gure gizartean era guztietako ekitaldi eta jaiak antolatzen dira, arlo artistiko edo kultural jakin bat ospatu, agertu edo ezagutarazteko. Ekitaldiak ospatu aurretik eta ospatzen diren bitartean, hainbat jarduera egiten parte hartzen dute pertsona askok. Horrek hainbat inpaktu positibo eta negatibo eragiten ditu, bai komunitatearentzat, bai ospakizunaren ingurunerako.

Gaur egun, gero eta ohikoagoa da ekitaldi bat antolatzerakoan jasagarritasuna kontuan hartzea, bai ingurumenaren gaineko zuzeneko eta zeharkako inpaktuak murrizteko, bai berdintasun eta eredugarritasun printzipioen sustapena areagotzeko.

Testuinguru horretan, ekitaldi bat ingurumeneko jasagarria dela esaten da, baldin eta ekitaldiaren diseinutik bertatik hartzen bada kontuan zer inpaktu eragin ditzakeen ingurumenean, eta efektu positiboak sustatzen eta negatiboak arintzen saiatzen bada, garrantzi berezia emanez gehiegizko ondasun materialen erabilera prebenitzeari, bai eta materialak berrerabiltzeari ere, eta, besterik ezean, sortutako hondakinak birziklatzeari.

Eskuliburu honen helburua da ekitaldien antolamenduan parte hartzen duten eragileei ekitaldi jasagarriek zer onura dakartzaten jakinaraztea, baita ekitaldi bat jasagarria izan dadin zer ekintza egin behar diren zehaztea ere.

INTRODUCCIÓN

En nuestra sociedad, se organizan todo tipo de actos y fiestas con el objetivo de celebrar, representar o dar a conocer un determinado campo artístico o cultural. Antes y durante estos eventos, un gran número de personas desarrollan y comparten distintas actividades, lo que conlleva una serie de impactos, positivos y negativos, tanto para la comunidad, como para el entorno en el que se celebra.

A día de hoy, cada vez es más común introducir la sostenibilidad como un criterio más a tener en cuenta a la hora de organizar un evento, tanto para reducir los impactos directos e indirectos sobre el medio ambiente, como por la oportunidad que representa para fomentar los principios de igualdad y ejemplaridad.

En este contexto, un evento ambientalmente sostenible es aquel que, desde su diseño, contempla el impacto ambiental generado tratando de potenciar los efectos positivos y atenuar los negativos, haciendo especial hincapié en la prevención de un exceso de bienes materiales, así como la reutilización de estos y en última instancia el reciclaje de los residuos generados.

El presente protocolo o manual tiene como objetivo hacer conocer a los diferentes agentes implicados en la organización de eventos en qué se basa la ambientalización de actos, así como cuáles son sus beneficios y qué acciones tomar para celebrar un evento sostenible.

HELBURUAK

Jardunbide egokien eskuliburu honen helburuak hauek dira:

- Ekitaldiekin lotutako ingurumen inpaktuak ezagutzea.
- Ekitaldi jasagarri batek dituen onurak ulertzea.
- Zer eremu hobetu daitezkeen identifikatzea.
- Ekitaldien antolakuntzan parte hartzen duten eragileak sentibilizatzea eta kontzientziatzea.

OBJETIVOS

Los objetivos que persigue este manual de buenas prácticas son los siguientes:

- *Conocer los impactos ambientales asociados a los eventos.*
- *Comprender los beneficios de un acto sostenible.*
- *Identificar las áreas de mejora potencial.*
- *Sensibilizar y concienciar a las partes implicadas en la organización de eventos.*

EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO ARRAZOIAK

Ekitaldi baten ingurumen inpaktuak

Ekitaldi baten ingurumen eragina ebaluatze-ko orduan, garrantzitsua da ikuspegi holistiko bat izatea. Alegia, ospakizunaren beraren inpaktuez gain, kontuan hartu behar da, era berean, zer inpaktu sortzen diren erabilitako elementu guztien materialen ekoizpenean, garraioan eta bizi-amaieran.

Hona hemen ekitaldi batek izan ditzakeen ingurumen inpaktuak:

POR QUÉ AMBIENTALIZAR UN EVENTO

Impactos ambientales de un evento

A la hora de evaluar el impacto ambiental de un evento, es importante tomar una perspectiva holística y no solo considerar los impactos de la propia celebración, sino también los impactos derivados de la producción de los materiales, el transporte y fin de vida de cada uno de los elementos utilizados.

A continuación, se exponen los impactos potenciales asociados a un evento:

- > **Berotegi efektuko gasak isurtzea**, bai hornitzaileen eta bai parte hartzaileen joan-etorrietan erregai fosilak kontsumitzearen ondorioz.
- > **Energia kontsumitzea** (argiztapen eta soinu ekipamenduak, besteak beste).
- > **Ura kontsumitzea** (komunak, garbiketaria lanak, etab.).
- > **Hondakinak sortzea**.
- > **Basa biziak asaldatzea**: kutsadura akustikoa, gaueko argiztapena, etab.
- > Beharrezko baliabideak eskuratzeko ondorioz sortutako beste inpaktu batzuk.

Ekitaldiak ingurumenerako jasangarriagoak egitearen onurak

Ekitaldi bat planifikatzean, sustatzean eta ospatzean, erabaki askok baldintzatzen dute prozesuaren emaitza, hainbat irizpideri jarraituz (segurtasuna, irudia, aurrekontua, bezeroen eskaerak eta bertaratutakoen espektatibak). Erabakiak hartzeko prozesu horretan ingurumen irizpideak sarriak abantailak ditu hainbat mailatan.

- > *Emisión de gases de efecto invernadero asociados al consumo de combustibles fósiles debido al desplazamiento de proveedores y asistentes.*
- > *Consumo energético (equipos de iluminación y sonido, entre otros).*
- > *Gasto de agua (uso del baño, tareas de limpieza, etc.).*
- > *Generación de residuos.*
- > *Perturbación de la vida silvestre: contaminación acústica, iluminación nocturna, etc.*
- > *Otros impactos derivados de adquisición de los recursos requeridos.*

Beneficios de la ambientalización de eventos

A la hora de planificar, promocionar y llevar a cabo un evento, existen muchas decisiones que condicionan el resultado del proceso, ajustándose a distintos criterios (seguridad, imagen, presupuesto, requerimiento del cliente y expectativas de los asistentes). La introducción de criterios ambientales en este proceso de toma de decisiones, ofrece ventajas a distintos niveles.



ONURAK BENEFICIOS		
Ingurumen onurak <i>Beneficios ambientales</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Lehengaien, energiaren eta uraren kontsumoa murriztea. - Hondakin gutxiago sortzea eta haien bizi amaieraren kudeaketa hobetzea. - Airera, uretara eta lurzorura isuri gutxiago egitea. - Zarata murriztea. - Inguruko biodibertsitatean kalteak gutxitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Reducción del consumo de materias primas, energía y agua. - Menor generación de residuos y mejora en la gestión de su fin de vida. - Disminución de las emisiones y vertidos al aire, agua y suelo. - Reducción del ruido generado. - Disminución de la repercusión sobre la biodiversidad de la zona.
Gizarte onurak <i>Beneficios sociales</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Antolakundeak erakundeen eta herritarren aurrean bere irudi ona indartzea. - Parte hartzaileak sentsibilizatzea eta haien ohiturak hobetzea. - Erakunde publikoen babesletza eta finantzazioa lortzeko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> - Reforzar la buena imagen de la organización ante las instituciones y la ciudadanía. - Sensibilización y mejora de hábitos de los asistentes. - Posibilidad de acceder a patrocinios y financiación por parte de instituciones públicas.
Onura ekonomikoak <i>Beneficios económicos</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Energia kontsumoari eta ur kontsumoari lotutako kostuak murriztea. - Materialak berrerabiltzearen ondorioz, lehengaien erosketak murriztea. - Bertako produktuen erosketak: tokiko ekonomiari laguntzea eta garraio kostuak murriztea. - Hondakinen kudeaketako kostuak murriztea, hondakin gutxiago sortzearen ondorioz. 	<ul style="list-style-type: none"> - Reducción de costes asociados al consumo energético y consumo de agua. - Reducción de costes asociados a la compra de materias primas debido a la reutilización de materiales. - Adquisición de productos locales: apoyo a la economía de la zona y reducción de costes en transporte. - Reducción de los costes de gestión de residuos debido a la reducción de su producción.





NOLA EGIN EKITALDI JASANGARRIAK

Ekitaldi bat jasangarriagoa egiteko, ekitaldi horren prestakuntzan, antolakuntzan eta ospakizunean zehar egin beharreko jarduerak guztiak hartu behar dira kontuan, baita ekitaldia amaitzean egin beharrekoak ere.

CÓMO AMBIENTALIZAR UN EVENTO

La ambientalización de un evento debe abordar cada una de las actividades desarrolladas tanto en el proceso de preparación, organización y celebración de un evento, como en las que se desarrollan tras la realización del mismo.

02

EKITALDI BAT EGITEKO PROZESUAREN FASEAK
FASES DEL PROCESO PARA LLEVAR A CABO UN EVENTO

Diseinua eta plangintza
Diseño y planificación

Antolakuntza
Organización

Ospakizuna
Celebración

Desmuntaia eta amaiera
Desmontaje y cierre

Era berean, ekitaldia jasangarriagoa egiteko, hiru esparru hauetan lan egin behar da:

- > **Ingurumena hobetzeko jarduerak.**
- > **Ekitaldiaren ingurumen monitorizazioa.**
- > **Komunikazioa eta sentsibilizazioa.**

Oso garrantzitsua da jasangarritasun printzipioak kontuan hartzea bai ekitaldiaren planifikazioan, bai diseinu fasean eta bai antolamendu fasean. Modu horretan, hainbat arlotan hartuko dira erabakiak, eta horrela, ekitaldiaren garapena eta desmuntaia bideratuko dira.

Ekitaldia ospatzen den bitartean, oso garrantzitsua da datuak monitorizatzea eta biltzea. Horren bidez, ekitaldiaren benetako inpaktua kalkulatu ahal izango da gero, eta aplikatutako jardueren eragina ebaluatu eta puntu kritikoak identifikatu. Gainera, ariketa horrek informazio baliotsua emango du ekitaldiaren hurrengo edizioetarako.

Azkenik, ekitaldiaren aurretik eta ekitaldian zehar egindako komunikazioari esker, inplikaturako eragileak informatuta egongo dira eta ezarritako helburuak ezagutuko dituzte. Hori lagungarria izango da, ekitaldiak sor ditzakeen eragin positiboak maximizatzeko eta inpaktu negatiboak minimizatzeko. Halaber, ekitaldian zehar ingurumenari buruzko komunikazio ekintzak egitea oso aukera ona da parte hartzaileak ingurumena zaintzearen garrantziaz sentsibilizatzeko.

Gaur egun, IHOBek ekitaldi jasangarriagoak egiteko eskuliburu bat du *Erronka Garbia* metodologian oinarritua. Badira beste gida batzuk ere, hala nola Bartzelonan Sant Andreu distrituko Ingurumen Gelak egindakoa: *Guia d'ambientalització d'esdeveniments*.

A su vez, para la ambientalización del evento, es necesario llevar a cabo acciones en tres ámbitos distintos:

- > **Actuaciones de mejora ambiental.**
- > **Monitorización ambiental del evento.**
- > **Comunicación y sensibilización.**

Es muy importante introducir principios de sostenibilidad desde el inicio de la planificación, en la fase de diseño y durante la organización del acto. De esta forma se tomarán decisiones en distintos ámbitos y se condicionará el desarrollo y el desmontaje del evento.

Durante la celebración del evento, es muy importante realizar la monitorización y recogida de datos, que posteriormente permitirá calcular el impacto real de evento, evaluar el efecto de las actuaciones aplicadas e identificar los puntos críticos. Este ejercicio proporcionará información valiosa cara a la celebración del evento en próximas ediciones.

Por último, la comunicación y difusión realizada antes y durante el acto hará que los agentes implicados estén informados y conozcan los objetivos fijados, con el objetivo de maximizar los impactos positivos y minimizar los negativos que el evento en cuestión pueda producir. Asimismo, llevar a cabo acciones de comunicación ambiental durante el evento es una buena oportunidad para sensibilizar a los asistentes en torno a la importancia del cuidado del medioambiente.

*Actualmente, IHOB cuenta con un manual para la ambientalización de actos basado en la metodología **Erronka Garbia**. Asimismo, existen otros guías disponibles, como la **Guía de Ambientalización de Eventos** de la Aula Ambiental del Distrito de Sant Andreu, en Barcelona.*



JARDUNBIDE EGOKIEN BILDUMA

Atal honetan, ekitaldiak jasangarriagoak egiteko adibide batzuk deskribatzen dira, jarduera arloen arabera sailkatuta.

RECOPIULATORIO DE BUENAS PRÁCTICAS

En este apartado, se describen brevemente algunos ejemplos para la ambientalización de eventos clasificados por ámbito de actuación.

03

EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEN BILDUMA
 RECOPIULATORIO DE BUENAS PRÁCTICAS PARA LA AMBIENTALIZACIÓN DE EVENTOS

Jarduera arloa <i>Ambito de actuación</i>	Jardunbide egokiak <i>Buenas prácticas</i>
Garraioa <i>Movilidad</i>	Garraio publikoko sarean integratuta dagoen edo oinez iristeko aukera ematen duen leku bat hautatzea. <i>Elegir una localización que se encuentre integrada en la red de transporte público o que sea accesible a pie.</i>
	Garraio publikoa sustatzea eta garraio zerbitzu horien estalduraren berri ematea. <i>Fomentar el transporte público e informar de la cobertura de dichos servicios.</i>
	Garraio kolektibo pribatua sustatzea (autoa partekatzea eta beste batzuk). <i>Fomentar el transporte colectivo privado (coche compartido y otros).</i>
	Motorrik gabeko garraiobideak sustatzea, bizikletentzako aparkalekuak jarriz, adibidez. <i>Promover medios de transporte no motorizados mediante la instalación de aparcamientos para bicicletas, por ejemplo.</i>
	Ekitaldirako aparkalekuen kokalekua erabakitzean, ingurune naturalean ahalik eta eragin txikiena izateko leku bat aukeratzea. <i>Cuidar la ubicación de los aparcamientos habilitados para el evento, minimizando en la medida de lo posible el impacto en el medio natural.</i>
	Ekitaldia urrunetik (streaming bidez) ikusteko aukera ematea. <i>Ofrecer la posibilidad de seguir el evento a remoto.</i>
Energia <i>Energía</i>	Ekitaldiaren energia beharrak aztertzea, energiaren erabilera optimizatzeko eta kontratatutako energia doitzeko. <i>Estudiar las necesidades energéticas del evento cara a optimizar el uso energético y no sobredimensionar la energía contratada.</i>
	A klaseko ekipo eta instalazio efizienteak hautatzea eta kontsumo txikiko bonbillak erabiltzea. <i>Seleccionar equipos e instalaciones eficientes de clase A y emplear bombillas de bajo consumo energético.</i>
	Argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzea. <i>Maximizar el aprovechamiento de la luz natural.</i>
	Energia garbia sortzeko iturriak dituzten kokalekuak kontuan hartzea. <i>Considerar localizaciones que cuenten con fuentes de generación de energía limpia.</i>
	Energiaz hornitzeko kontratuan energia berriztagarria sartzea. <i>Incorporar energía renovable en el contrato de suministro.</i>
Ura <i>Agua</i>	Uraren hornidura eta azken kudeaketa aztertzea eta planifikatzea. <i>Estudio y planificación del abastecimiento del agua y su gestión final.</i>

Jarduera arloa <i>Ambito de actuación</i>	Jardunbide egokiak <i>Buenas prácticas</i>
Ura <i>Agua</i>	Ura aurrezteko sistemak ezartzea. <i>Instalar sistemas de ahorro de agua.</i>
	Parte hartzaileen artean uraren kontsumo arduratsua sustatzea. <i>Fomentar el consumo responsable del agua entre los asistentes.</i>
Material eta azpiegiturak <i>Materiales e infraestructura</i>	Eskura dauden baliabideen inbentarioa egitea eta eskuragarri ez dauden material eta zerbitzuetarako erosketa eta kontratazio politika berdea ezartzea. <i>Inventariar los recursos de los que se dispone e implantar una política de compra y contratación verde para los materiales y servicios no disponibles.</i>
	Produktu berrerabilgarriak erosteari lehentasuna ematea eta produktu berrerabilgarri horiek itzultzeko itzulera sistemak sortzea. <i>Priorizar las compras de productos reutilizables y crear sistemas de retorno.</i>
	Inprimatutako materiala murriztea eta horren ordez formatu digitala erabiltzea, edo, bestela, paper birziklatua eta metal astunik ez duten tintak eta tonerrak erabiltzea. <i>Reducir el material impreso y sustituirlo por formatos digitales, o, en su defecto, utilizar papel reciclado y tintas y tóners que no contengan materiales pesados.</i>
	Produktuak eta zerbitzuak hautatzeko ingurumen irizpideak ezartzea. <i>Establecer criterios ambientales para la selección de productos y servicios.</i>
	> Elikadura: mahaikide kopurua kalkulatzeko produkturik ez xahutzeko, tokiko hornitzaileak eta sasoiko produktuak lehenestea, pestizida eta ongarri kimikorik gabeko produktuak aukeratzea, etab. <i>> Alimentación: estimar el número de asistentes para evitar el despilfarro, priorizar proveedores locales y productos de temporada, escoger productos libres de pesticidas y fertilizantes, etc.</i>
	> Catering-a: mahai tresna eta ontziteria berrerabilgarria edo konpostagarria erabiltzea, inpaktu txikiko menua hautatzea, etab. <i>> Catering: uso de menaje y vajilla reutilizable o compostable, selección menú de bajo impacto, etc.</i>
	> Garbiketa lanak: produktu biodegradagarriak eta jasangarritasun irizpideak betetzen dituzten garbitzeko tresnak erabiltzea, ura eta energia aurrezteko garbiketa prozedurak ezartzea, etab. <i>> Limpieza: uso de productos biodegradables y útiles de limpieza que cumplan criterios de sostenibilidad, procedimientos de limpieza que permitan el ahorro de agua y energía, etc.</i>
	> Merchandising-a: materiala ez pertsonalizatzea ondorengo ekitaldietan berrerabili ahal izateko, ehun birziklatuak erabiltzea, ingurumen etiketak dituzten produktuak lehenestea, etab. <i>> Merchandising: no personalizarlos para poder utilizarlos en futuros eventos, uso de textiles reciclados, priorizar productos con etiquetado ambiental, etc.</i>

Jarduera arloa <i>Ambito de actuación</i>	Jardunbide egokiak <i>Buenas prácticas</i>
Material eta azpiegiturak <i>Materiales e infraestructura</i>	Ekitaldia lehenetik existitzen diren azpiegiturak kontuan hartuta diseinatzea, eta, ezinezkoa bada, aldi baterako azpiegitura berrerabilgarrien erabilpena lehenestea. <i>Diseñar el evento teniendo en cuenta infraestructuras preexistentes, y en el caso de que no sea posible, priorizar el uso de infraestructuras temporales reutilizables.</i>
Hondakinak <i>Residuos</i>	Hondakinen gaikako bilketa sustatzea, paperontziak eta gaikako biltzetarako edukiontzia jarriz, behar bezala seinaleztatuta. <i>Fomentar la recogida selectiva de los residuos mediante la instalación de islas de papeleras y contenedores de recogida selectiva debidamente señalizados.</i>
	Parte hartzaileak hondakinak prebenitzearen eta hondakinen kudeaketa egokia egitearen garrantzia sentsibilizatzea. <i>Sensibilizar a los asistentes de la importancia de prevenir la generación de residuos y de cómo llevar a cabo una buena gestión de los mismos.</i>
	Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea, eta ahal bada, tokian eta modu jasangarrian kudeatzea. <i>Asegurar una correcta gestión de los residuos generados, y en el caso de que sea posible, gestionarlos de forma sostenible y local.</i>



Aula Ambiental del Distrito de Sant Andreu. (2022). Guia d'ambientalització d'esdeveniments.
https://ajuntament.barcelona.cat/santandreu/sites/default/files/documents/guiaambiental-2022_octubre22.pdf


IHOBE. (2017). Manual de organización de eventos ambientalmente sostenibles. Metodología Erronka Garbia.
https://sostenibilidadresiduos.es/media/files/Bibliografia/Codigo_24/Manual_organizacion_eventos_ambientalmente_sostenibles.pdf



STOP

EKITALDI PUBLIKO EZ JASANGARRIAK

EVENTOS PÚBLICOS
NO SOSTENIBLES



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



UROLA
KOSTA
INGURUMENA

